



05

mesanotxean

Gazteentzako balio anitzeko zerbitzuak

"Mesanotxean" izenburupean Gipuzkoako Foru Aldundiak kaleratzen duen e-GAZTEMIRA buletin elektronikoaren monografikoen bilduma da. Bertan Gipuzkoako haur eta gazteria politikekin zerikusia duen gairen bat jorratzen da hiru hilabeteen behin.

Eginkizun horretarako, "Gazte faktoria berritzegunea" izeneko enpresaren laguntza teknikoa dugu "Mesanotxean" bildumaren edukiak prestatzeko orduan, GFAko Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuaren zuzendaritzapean.



mesanotxean 05

Izenburua: Gazteentzako balio anitzeko zerbitzuak

Egileak: Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia. Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Gazte Faktoria: Joxe Jimenez eta Olatz Miranda (edukien laguntzailea)

Bilduma: Mesanotxean. Haur eta Gazteria politiken monografikoa

Bildumaren koordinazioa: Edorta Bergua (GFA) eta Joxe Jimenez (Gazte Faktoria)

Diseinua eta maketazioa: Gazte Faktoria Berritzegunea eta IPAR Komunikazio Grafikoa

Hizkuntz aholkularitza: Maramara Taldea

© Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia. Gizarte Politikako Departamentua
Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaraldia: 2010eko Martxoa

Aurkibidea

Oinarrizko dokumentua:

Haurtxokoak, gaztelekuak... eta 18 urtetik gorakoentzat zer?

orrialde 4/11

Proposamenen dokumentua:

Gipuzkoan gazteentzako balio anitzeko zerbitzuak sortzen hasteko iradokizunak

orrialde 12/16

Tresnak

Gaiari buruzko gehiago jakiteko...

orrialde 18/20

Oinarrizko dokumentua:

Haurtxokoak, gaztelekuak... eta 18 urtetik gorakoentzat zer?

Monografiko honetan, 18 urtetik gorako gazteen sormena eta ekoizpena sustatuko dituen ekipamendu on bat prestatzeko errezetak izan behar dituen osagaiak proposatuko dizkizuegu.

Zer gazte zerbitzu eskaini edo ahalbidetu behar die udal batek 18 urtetik gorakoei? Nolako azpiegitura izan daiteke haientzako erreferentziala? Zer helburu izan ditzake zerbitzu horrek? Zer ekintza programa daitezke? Zer sistemaren bidez kudeatu behar da? Zer profil tekniko izan behar dute zerbitzuko profesionalek? Zein da metodologiarik egokiena? Titulartasun publikokoa izan behar du ala gizarte ekimenekoa? Beste leku batzuetan galdera hauetako batzuei eman zaien erantzuna lagungarri gerta dakiguke Gipuzkoan gure platera prestatzeko errezeta lantzeko.

Sukaldaritzako liburu gisa, *Gipuzkoako haurren eta gazteen sustapenerako sistemaren diseinua* erabiliko dugu¹. Bertan, Gazteentzako Balio Anitzeko Zerbitzurako (Gaztegunerako) mahairatutako helburu orokorrak daude jasota:

- Aisialdiaz modu atsegingarrian gozatzea.
- Ekintza eta ekimenak gauzatzeko eta kudeatzeko gaitasuna handitzea.
- Inguruan gizarteratzeko harremana garatzea.

Azken urteotan, hainbat sukaldaritza taldek plater berriak probatu eta sortu dituzte (Sorkuntzarako eta Ekoizpenerako Gazte Zerbitzua) jatetxe batzuetan (hiriak). Beraz, plater bakoitza prestatzeko eman dituzten urratsak ezagutuko ditugu, gure jatetxean (Gipuzkoa) hobeto prestatuta egon gaitezen.

Aipatuko dugun lehenengo taldea JOC-A gazte taldea da². Talde honek 1997an ekin zion abenturari Gijóngo Calzada auzoan, errealitatearen analisi batetik abiatuta. Analisi horretan, garbi ikusi zuten aldatu egin behar zela gazteek aisialdian jaten zuten menu errepikakor eta kontsumista: «Beti gauza bera egiten zuten: kanean egon eta taberna edo diskoteketara joan». Diagnostiko horren aurrean, taldeak entsegu bat egitea erabaki zuen. Horrela, gaueko aisialdirako programa alternatibo bat prestatu zuen, gazteek gazteentzat egina. Eta izenak ongi adierazten duen moduan, egunsentira arte egongo zen irekita, «gauean aisialdirako beste aukera (gustu) batzuk eskaintzeko».

Jatetxeak orain arte egin duen ibilbide historikoa luze eta zabal azalduta dator elkarrekin argitaratutako *Manual del animado* liburuan³, 200 orrialde baino gehiagotan. Proiektu hau ondoko sei puntu hauek lotzeagatik iruditu zaigu interesgarria, garrantzitsuak guztiak ere gazteentzako aisialdi programa orotan: aisialdia, hezkuntza (ez-formala eta informala), irisgarritasuna, gizarte inguru batean errotzea, metodologia parte-hartzailea eta talde kualifikatua.

Abierto Hasta el Amanecer taldearen arabera, aisialdia autoerrealizazio, eskubide eta bizi kalitate gisa⁴ ikustea izango litzateke egokiena. Gazteek aisialdirako denbora dute-nean (asteburu-erretako gauak) eta askatasunez ekintzetan parte hartzea aukeratzen du-

1. Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia. **Gipuzkoako haurren eta gazteen sustapenerako sistema**. Gipuzkoako Foru Aldundia, 2010.

2. JOC-A. **Juventud Obrera Cristiana de Asturias**. Calzada auzoa. Gijón.

3. Marcos Juez Tarano. **Manual del animador**. A. J. Abierto Hasta el Amanecer. Gijón. 2007

4. Cuenca Cabeza. **Ocio humanista**. Bilbo. Deustuko Unibertsitatea (2000), 70-80 or.

tenean hasten da programa. Oro har, gaztearen helburua dibertitzea eta ondo pasatzea da. Nahiz eta ekintza gauzatzean ikasi ere egiten duten, ikaskuntza horiek bigarren mailakoak dira eta gehienetan ez dira motibazio nagusia. Parte hartzen duten gazteak pozik gelditzen dira esperientziarekin; are gehiago, askotan errepikatu egiten dute. Aisialdi antzu, suntsigarri eta alienagarrien aurrean, dibertsioa eta ikaskuntza bateratzen dituen hezkuntza alternatiba proposatzen dute.

Gainera, aldi berean bi hezkuntza esparrutan esku hartzen duenez (ez-formalean [proposatutako ekintzak] eta informalean), berrikuntzaren aldeko apustua egiten du. Abierto Hasta el Amanecer taldeak garrantzi handia ematen die taldeetan sortzen diren harremanei; ikaskuntza informal horiek, gainera, formalak bezain boteretsuak edo boteretsuagoak izaten dira askotan. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaie harreman horietan hasiera-hasieratik bitartekari lanetan aritzea eta gazteei harremanak erraztea. Inguruek honelakoak izan beharko lukete: berezkoak (egituratu gabeak), erakargarriak, helduen begiradetatik salbu, seguruak eta osasungarriak. Arlo ez-formalean, ekintza erakargarrien eskaintza zabala egiten dute zaletasun guztietarako (gastronomia, musika, eskalada, informatika...), erritmo guztietarako (lasaia, dinamikoa...), formatu guztietan (banakoak, taldekoak), moderno oso, hirietako gazte kultura berrietatik hurbilekoa (*hip hopa*, *skatea*, musika elektronikoa...).

Programa doakoa da, gazte guztiek izan dezaten bertara jotzeko aukera. Gainera, gazteentzat garrantzitsua da programan parte hartu ahal izateko urrutira joan beharrik ez izatea. Horrela, bide batez, mugikortasun iraunkorra bultzatzen dute. Horregatik, auzoetan antolatzen dituzte ekintzak, inguru horiek direlako gazteengandik hurbilen daudenak, eta auzoetan dauden baliabide publikoak baliatzen dituzte (kultur etxeak, kiroldegiak, ikastetxeak, parkeak...).

Programaren helburua gazteek beren komunitateko bizi baldintzak hobetzeko esku hartzea da. Jarduerak diseinatzeko orduan, auzoko erakundeekin lankidetzan aritzen dira Abierto Hasta el Amanecer taldekoak, bi noranzkoetan: edo taldekoak joaten dira erakundeetara, edota erakundeetakoak joaten dira taldera. Xede hori sendotzen duen beste mekanismo bat lantaldeak sortzerakoan aplikatzen duten protokoloa da (gazteen bitartekariak). Alde batetik, auzoko erakundeetako edo taldeetako lider gazteak aukeratzen dituzte, eskarmentua dutelako partaidetzan, proiektuen buru izateko gaitasuna dutelako eta lurraldeko baliabideak ezagutzen dituztelako; bestalde, ez dituzte titulaziorik gabeko gazteak baztertzen, eta badakite ikasketekin lotuta ez dauden dohainak dituzten pertsonak erakartzen. Pertsona horiek funtsezkoak izan daitezke inguruko gazteak hurbilazteko eta zuzenean ezagutzeko.

Abierto Hasta el Amanecer taldea gazteek sortu dute, inguruan dituzten arazoei erantzuteko. «Gazteen esku daude proiektuaren zuzendaritza, diseinua, antolaketa, egikarritza eta ebaluazioa. Eta beharbada horregatik du arrakasta, beste hirietako ekimenekin alderatuta»⁵. Duela urte gutxira arte, erraz samarra zen auzoan bertan programa kudeatzeko eta garatzeko prest zeuden eta elkarteetan parte hartzen ohituta zeuden gazteak topatzea; gaur egun, ordea, profil akademiko oneko gazteak aurkitzen dituzten arren, gazte horiek ez dute elkarteetan parte hartu izanaren esperientziarik. Egoera ho-

5. Marcos Juez Tarano. *Manual del animador*. 2007. A. J. Abierto Hasta el Amanecer. Gijón. 55. or.

rreren aurrean, lantalde kualifikatu eta eskarmentudunak prestatzeko zentro bat zabaldu dute. Beharrezkoa da programak freskoa, berritzailea, dinamikoa, erakargarria eta hurbilekoa izaten jarrai dezan prestakuntza iraunkorra bultzatzea.

Laburpen gisa, esan dezakegu Abierto Hasta el Amanecer taldeak lagundu egin digula jatetxean karta ona prestatzeko beharrezko osagaiak zehazten. Dena den, plater onak egiteko, sukalde ona ere behar dugu (Gazteentzako Balio Anitzeko Gunea), eta sukalde horrek hainbat tresna izan behar ditu (tailerrak, skate pista, antzerkia) askotariko platerak (ekintzak) prestatzeko. Horrez gain, jatetxeak diseinu ona badu eta erakargarria bada, jendea ez zaigu kartarengatik bakarrik hurbilduko, baizik eta gustura sentitzen delako mahai-lagun, zerbitzari eta sukaldarien artean. Horregatik, berebiziko garrantzia du jatetxea diseinatzen duen arkitektoak sukaldariak eta mahai-lagunak kontuan hartzea, ez baitira osagai berberak behar ganbak plantxan edota marmitakoa prestatzeko.

Jarraian bisitatuko dugun jatetxea Katalunian dago. Azken urteotan, bertako plater batzuk oso ospetsu bihurtu dira; horietako asko *Joves, creació i comunitat*⁶ liburuan daude jasota. Gizartean bazterkeria pairatzeko arriskua duten gazteak hezteko baliabide gisa sormena eta ekoizpen artistikoa erabiltzen dituzten proiektuen inguruko gogoeta prozesuan egindako platerak biltzen dira bertan. Sukaldaritzako profesionalak, laborategian hainbat egun eman ondoren, osagai horiek lantzeko hainbat formula asmatu dituzte, eta oso plater goxoak prestatu. Liburua oso mardula denez, plater batzuk baino ez ditugu aipatuko: Ateneu popular de Nou Barris de Barcelona-ko zirku soziala, Badia del Vallès-eko Sarandonga antzerki-taldea, Adsis i Carmel Amunt Fundazioaren *Miradas Extrañas*, Teleduca-k sustatutako *Convivimos en Trinidad Vieja e investigamos el barrio de Trinidad Vieja*, Gironako Art-Crea proiektua...

Hurrengo atalean, Extremadurako Factoría Joven esperientzia aurkeztuko dizuegu. Gazteen sormena eta ekoizpena bultzatzeko, modu kooperatiboan eta diziplinartekoan egiten dute lan arkitektoek, gazteek eta gazteria teknikariek. Konparazio arkitektonikoa eginez, esan dezagun proiektu berean biltzen dituela ontzia eta edukia.

6. Carme Mayugo, Xavi Pérez, Marta Ricart. *Joves. Creació i comunitat*. 2004. Finestra Oberta /41. Jaume Bofill Fundazioa. Bartzelona.

FACTORÍA JOVEN: SORMENEZKO AISIALDIRAKO INSTALAZIOA, AITZINDARIA BERE ABANGOARDIAKO DISEINUAN, MALGUA ETA FUNTZIONALA

Extremadurako Gazteriaren Erakundeak abiarazitako proiektua da honako hau, III. Gazteria Planaren (2005-2008) eta Bizikidetzarako eta Aisialdirako Legearen inguruko eztabaiden ostean sortutakoa. Eztabaida horietan hauteman zuten gazteek ekintza ludikoak eta aisialdikoak egiteko gune egokiak behar zituztela. Hain zuzen ere behar horri erantzuteko sortu zen Factory mugimendua, gazteen hainbat arlotako elkarte biltzen dituen: abentura, hiri artea, gorputzaren arte adierazpenak, malabarismoa, dantza, in-paktu antzerkia, breakdancea, zirkua...

Martxan jarri izanaren zioa

Extremadurako Gazteriaren Erakundeko talde teknikoaren arabera¹, ondoko arrazoiengatik jarri zuten martxan gazteentzako proiektu hau:

- Proiektu honek Extremadurako Bizikidetzarako eta Aisialdirako Legean agindutakoa betetzen du. Extremadurako Parlamentuak 2003an onetsi zuen lege hori, eskualdeko gazteen aisialdiari eta «litroak edatearen» eraginari buruzko eztabaida sozial sakon baten ondoren (Futuro kanpaina).
- Gazteek kontsumismo komertzialetik aldentzen den aisialdi emankorraz gozatzeko egindako eskariari erantzuten dio.
- Gazteen Sormenerako Guneetan du abiapuntua eta gazteek aisialdiaz beste modu batean gozatzeko aukera ugari eskaintzen ditu.
- Interes eta zaletasun oso ezberdinak dituzten gazteen topagunea sortzean datza.
- Gazteen beharrei erantzun egokia emango dieten proiektuak ereiteko sortu da Factoría Joven; izan ere, bertan bat egiten baitute gazteek eta erakundeek komunikatzeko, harremanetan jartzeko eta zuzeneko partaidetza bultzatzeko.
- Ekimen honen bidez, parte hartzeko kultura bultzatu nahi da gazteen artean, gaur egun nolabait ahaztua baitago. Horretarako, behar-beharrezkoa da gazteengana aisialdiaren bidez hurbiltzea, handik gazteei interesgarri suerta dakizkiekeen beste alderdi batzuk lantzen joateko (etxebizitza, enplegua, ekintzailtza, prestakuntza, balioak, elkarteak, osasuna...).

1. Extremadurako Gazteriaren Erakundea. Redacción joven agentzia. http://www.redaccionjoven.com/buscar.html?field_search=factoria+joven.

Zer da Factoría Joven?

Factoría Joven Extremadurako Autonomia Erkidegoko 14 eta 35 urte arteko gazteei zuzendutako instalazioa da. Abangoardista da bere sorkuntzan, diseinuan eta funtzionamenduan; hainbat gune irekiz zein itxiz osatuta dago, aisialdi alternatiboaz gozatzeko eta gazteen topagune eta sormenerako gune izan dadin. Gazteen ustez, aisialdia esperientzia adierazgarriak bizitzearekin dago lotuta, eta haiek izan behar dute protagonismoa. Horregatik, Factoría Joven gazteentzako leku irekia da, dinamikoa eta malgua, hurbileko toki batean dagoena, bertara iristeko erraza eta berentzako erreferentea dena. Bertan, beren aisialdia eta lasai egoteko denbora «fabrikatzeko» aukera izan behar dute.

Helburu orokorrak²:

1. Lau hiri handienetan bizi diren gazteentzako topagunea sortzea, bertan pertsona gisa gara daitezen eta beren sormena aska dezaten.
2. Administrazioak baliabideak ematea, gazteek instalazioa diseinatzen eta eraikitzen parte har dezaten; horrela, etorkizunean instalazioaren sortzaile gisa parte hartuko dutela ziurtatuko dute.
3. Gazteen artean parte hartzeko kultura sustatzea.

Kokapena

Gazte faktoriak eskualdeko hiririk garrantzitsuenetan daude; hots, Badajozen, Cáceresen, Méridan eta Plasencian. Extremadurako Junta arduratu da horiek eraikitzeaz eta hornitzeaz, Gazteriaren eta Kirolaren Sailaren bidez. Horiek abiarazteko, beharrezkoa da hiri bakoitzeko udalaren lankidetzeta eta parte-hartzea, gutxienez 2.000 metro koadroko lursailak lagatzeko konpromisoa hartzen baitute.

Diseinua, parte hartzeko prozesua

Plasencian bizitako prozesuak gainerako udalerrietan emandako pausoak ikusteko balio digu. Factory mugimenduak gazteen eta administrazioaren arteko (teknikariak eta arkitektoak) bitarteko eta solaskide funtzioa betetzen du. Elkarteetan edo taldeetan biltzen diren gazte askok bideratu eta sustatu dute Gazte faktoria sortzeko prozesua. Beren partaidetza, batez ere, hiru alderditara zuzendu da: faktoria kokatuko den lekua aukeratzera; ekipamenduari eman beharreko erabilera zehaztera; eta guneen kanpoaldea eta barrualdea diseinatzerara.

2. Extremadurako IV. Gazteria Plana (2009). 4.3. Aisialdia. Neurria: Factoría Joven. 304. or.

Hiru une garrantzitsutan hartu dute parte diseinua definitzeko prozesuan. Kontsulta baten bidez, gazteek azpiegitura eraikitzekeo gustukoak zituzten hiru lekuak aukeratu zituzten. Badajozeko elkartearen artean hainbat inkesta banatuta, gazteen proposamenak jaso zituzten: bizikletekin ibiltzeko *skate* pista, musika taldeek erabiltzeko eta film laburrak ikusteko ikus-entzunezko gela, kontzertu areto agertokiduna, akrobazia eta dantzetarako beste areto bat, eta Interneten nabigatzeko ordenagailu gela. Azkenik, bilera batean herritar guztientzako eskalada murrerik sortzeko proposamena mahairatu zuten.

Diseinu arkitektonikoa

Faktorien diseinu arkitektonikoa Gazteria Sailak antolatutako ideien lehiaketa baten bidez erabaki zen. Hiri bakoitzean arkitekto talde ezberdinak izan dira garaile eta, hala, berrikuntzaren eta aniztasunaren aldeko apustua egin da. Leku faltagatik, ezinezkoa zaigu proiektu bakoitzaren ezaugarri teknikoak adieraztea, baina Plasenciako proiektuari tarte labur bat eskainiko diogu, faktorien diseinu berritzaile hurbiltzeko.

Plasenciako Gazte faktoria:

Instalazioa malgua, funtzionala eta balio anitzeko espazioekin jolasteko baliagarria izatea nahi zuen arkitektoak. Horrela, gazteentzako leku «erakargarria» sortu du, eraikin publiko batzuek transmititzen duten irudi instituzionaletik aldentzen dena.

Filosofia horrekin berarekin, ataria eraiki dute sarreraren, parkearen aurrean, aire zabalean egiten diren emanaldietarako agertokia estaltzen duen markesina gisa ere erabili daitekeena. Kanpoaldean 800 m² baino gehiagoko skate pista eta hiru dimentsioko eskalada murrerik daude, baita leizea eta espeleologia haitzuloa ere.

Eraikinaren barrualdean, elkarren artean komunikatuta dauden hiru modulu daude; bakoitzak 76 m² erabilgarri ditu eta balio anitzeko gune gisa funtzionatzea du helburu, bertan ekintza anitz garatzeko.

- 1. gunea: Ikus-entzunezko modulua da, teknologia berriei eskainia; bertan, DVD proiektagailuak, bideo-jokoaren kontsolak (Wii, Play Station...) eta Internetarako konexioa duten ordenagailuak daude.
- 2. gunea: Zirku eta dantza ekintzetarako modulua da. Dantzatzekeo zoru irristagarria du, ohe elastikoa...
- 3. gunea: Prestakuntza ikastaroetarako egokitutako modulua da. Internetarako konexioa duten ordenagailuak ere badaude bertan.

Bulegoak eta biltegiak moduluetatik kanpo daude, baina komunikatuta hala ere. Horrela, plaza moduko bat sortu dute eraikinaren eta *skate* gunearen artean, erabiltzaileak bertan biltzeko aukera izan dezaten. Eraikinaren goiko solairuan hiru gela daude (1. gela, 2. gela eta 3. gela), bakoitza 23 m² ingurukoa, gazteen elkarteek bilerak egin ditzaten. Faktoriaren eraikin guztian wifi konexioa dagoenez, edozein gazte konekta daiteke Internetera.

Zer ekintza gauza daitezke eta nola kudeatuta?

Zentro honetan, gazteek irudimena askatzeko aukera dute, gehien gustatzen, motibatzen edo dibertitzen dituen egiteko eta horrekin gozatzeko. Printzipioz, ez dago alde zuzenik ezarritako araurik ez mugarik. Eskura dauzkate behar dituzten baliabideak, baina baldintza batekin: besteak eta instalazioak errespetatzea. Eta Gazte faktoria kudeatzea eta mantentzea.

Gazte faktorian, gazteek beren aisialdia eurek proposaturiko alternatibekin bete dezaketela ikusiko dute. Neska-mutilak izango dira ekintza horiek antolatuko eta kudeatuko dituztenak.


Faktorien gunetan, barruan zein kanpoan, aisialdirako aukera anitz egoten dira, gazteen interesen eta moden arabera (eskala murrua, *tunninga*, kartinga, aeromodelismoa, frontoia, patinen gaineko hockeya...); hiriko adierazpen kulturalak (grafitiak, gorputz adierazpena eta dantza, musika-jaialdiak...); teknologia berriak (Internet, sare sozialak, *moddinga*...).

Proposamenen dokumentua:

Gipuzkoan gazteentzako balio anitzeko zerbitzuak sortzen hasteko iradokizunak

Orain bertan, udalerrri gehienetan ez dago 18 urtetik gorakoei zuzendutako zerbitzurik. Kasu bakan batzuk baino ez daude; hala nola, Gipuzkoa osoko Gaztegunea eta Hondarribian (Saindua Gaztetxea), Donostian (Kontadores) edo Irunen (Martindozenea) dauden esperientziak.

Agerian dago, beraz, adin horretako gazteentzako zerbitzuen eredua definitzen has-teko beharra. Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistema¹ diseinatzeko prozesua lagungarria izan da Gazteentzako Balio Anitzeko Zerbitzuaren eredua izan be-harko litzatekeenaren zirriborroan aurrera egiteko. Hona, ondorengo koadroan, bertan jasotakoaren laburpena:



1. **Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistema.** 2010. Haurren eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia. http://www.gipuzkoagazteria.net/gestor/nodos/nodo_dok_din/Sistema_behin_betikoa_EU.doc

KONTUAN HARTU BEHARREKO PISTA BATZUK

Jarraian, Gazteentzako Balio Anitzeko Zerbitzuaren (Gaztegune) eredu definitzeko interesgarri suerta daitezkeen proposamen batzuk adieraziko ditugu.

DEFINIZIOA:

- Gazteei udalerrietan ezarriko den Gaztegune eredu ahalik eta modu gardenenean aurkeztea.
- Gazteen eta erakundeen arteko partaidetza eta lankidetza hitzarmena proposatzea, gazte zerbitzuko bost gakoak finkatzeko eta erabiltzeko (diseinua, helburuak, programazioa, kudeaketa eta ebaluazioa).

DISEINUA:

- Garrantzitsua da zerbitzuaren diseinua partaidetza prozesu baten fruitu izatea; hots, gazteak proiektuaren solaskide eta lagun bihurtzea.
- Gomendagarria litzateke zerbitzuaren kokapena zehazteko orduan ere parte-hartzea bultzatzea, betiere lekurik egokienaren ingurua zein den erabakitzeko aholkularitza teknikoaz baliatuz.
- Zerbitzua diseinatzeko eta eraikitzeko lanetan, lankidetza bultzatu beharko litzateke engeiatutako eragileen artean (gazteak, gazteen teknikariak, hirigileak eta arkitektoak), beharrak eta soluzioak ahalik eta hobekien zehazteko.
- Gazteen ekipamenduak gazteek egiten dutenaren zuzeneko irudiaren isla bihurtzea, gazteek beti zer ezkutatua dutela dioen ideia desmitifikatuz.
- Hiri arkitekturan erreferentziazkoak diren proiektuak diseinatzea, herritarrek gazte politikak museo, kultur etxe edo kiroldegien modu berean balora ditzaten.
- Mota horretako ezaugarriak dituen ekipamendua eraiki ahal izateko gutxienezko azalera zehaztea.
- Barrualdeari zein kanpoaldeari funtzionaltasun berbera emango dien instalazio eredu malgua proposatzea.

METODOLOGIA:

- Partaidetzan oinarritutako metodologia bultzatzea, gazteek aktiboki har dezaten parte proiektua zuzentzen, diseinatzen, antolatzen, gauzatzen eta ebaluatzen.
- Aukeretako bat kudeaketa zerbitzuko arduradun teknikoek eta gazteek elkarrekin gauzatzea izan daiteke.
- Talde teknikoan inguruko erakundeetako gazteek eta hiriko taldeetako pertsona esanguratsuek parte har dezaten saiatzea.

TREBAKUNTZA:

- Beste esperientzia batzuen azterketa kritikoa egiteko tresnak ematea eta zerbitzu horiek berritzeko proiektuen sorrera sustatzea.
- Partaidetza, sorkuntza, produkzio eta berrikuntzaren esparruan prestakuntza plan iraunkorra sortzea.
- Dinamizatzailearen profil profesional egokia definitzea (gaitasunak, funtzioak eta egin beharreko zereginak).
- Profil profesional horretarako prestakuntza berezitua sustatzea.
- Dinamizatzaileei eta teknikariei sormen prozesuen inguruko prestakuntza ematea: aurretiazkoak (zerbait egiteko prestatzea), sortzekoak (ideiak sortzea), baloratze-koak (daukaguna berrikustea) eta egitekoak (ideia garatzea).
- Ideiak sortzeko teknikei buruzko prestakuntza eskaintza sustatzea.
- Proiektu original eta berritzaileen elkartrukea bultzatzea profesionalen eta zerbitzu hauetan lan egiten duten erakundeen artean.

ZERBITZUAK - EKINTZAK:

- Aisialdi hezitzailea:
 - Bi motako ekintzak programatu ahal izatea: batzuk zuzenean gazteek sortuko dituzte, eta beste batzuk dinamizazio taldeak proposatutakoak izango dira.
 - Bai eremu formalean (proposatutako ekintzak) bai informalean (askeak), esku-hartzearen aldeko apustu egitea.
 - Bilguneak (ataripeak, eskailerak...) harremanetarako inguru erakargarri gisa baloratzea. Zerbitzuaren barruan, erabilera eta inplikazio berrietarako zubi gisa balio izatea.
 - Materialak eskura izatea (mikrofonoa, soka, mihisea, margoak, ura...), aisialdiko ekintzak modu natural, askean eta ustekabeen sortzen laguntzeko.
- Sormena eta ekoizpena:
 - Gazteen sorkuntzarako guneak eskaintzea, beren ekimenak garatzeko eta duten gaitasun sortzailea erakusteko.
 - Gune horiek euskarri desberdinetan (ikus-entzunezkoa, eszenikoa, plastikoa edo musikala) produzitzeko baliabideez hornitzea.
 - Zerbitzuan sortutako ekoizpena irudikatzen, aurkezteko eta proiektatzeko zirkuitua sortzea.
 - Sortzaileen arteko elkartrukearen alde egitea.
- Adierazpena eta partaidetza sustatzeko bideak:
 - Partaidetzaren kultura lantzeko tailerrak antolatzea.
 - Erakundeekin eta administrazioekin (udala, foru aldundia...) solasean aritzeko tresnak sortzea.

- Gazteen ekimenak babestea.
- Erakundeei ostatu ematea, eta lokalak eta materialak lagatzea.
- Gazteei eztabaidatzeko eta iritziak adierazteko guneak eskaintzea.
- Zerbitzu hauek 2.0 komunikazio tresnez hornitzea.
- Informazioa:
 - Ekipamendu horretan bertan koka daiteke gazteentzako informaziorako zerbitzua.
- Orientazioa:
 - Lanerako, etxebizitzarako, mugikortasunerako, bidaietarako, aisialdirako... orientazio zerbitzua.
- Laguntza:
 - Gazteen proiektu eta autoenplegurako proiektuen haztegi izateko aukera.

*Zure esku dago zerrenda hau luzatzea. Gure asmoa, azken finean, haur eta gazteen alorrean lan egiten duten eragileak hausnarketa egitera bultzatzea da, eta alor horretan izaten diren behar aldakorretara ahalik ondoen egokituko diren politikak diseinatzeko eztabaida piztea. **Anima zaitetz eta bidaliezazkiguzu zure proposamenak ondoko helbide elektronikoa honetara: e-gaztemira@gipuzkoa.net***

Tresnak

Gaiari buruzko gehiago jakiteko...



- Juez Tarano, Marcos. *Manual del animador*. Gijon: Asociación Juvenil Abierto Hasta el Amanecer, 2007.
- Mayugo, Carme; Pérez, Xavi; Ricart, Marta. *Joves, creació i comunitat*. Finestra Oberta/41. Barcelona: Jaume Bofill Fundació, 2004. [linean]. <http://www.fbofill.cat/intra/fbofill/documents/publicacions/390.pdf> [kontsulta: 2010eko martxoaren 22a]
- Lop, Irene; Valls, Cristina. *Joves i nit: un procés de participació amb joves*. Finestra Oberta/49. Barcelona: Jaume Bofill Fundació, 2006. [linean]. <http://www.fbofill.cat/intra/fbofill/documents/publicacions/430.pdf> [kontsulta: 2010eko martxoaren 22a]
- *Creativitat i animació: vells reptes, nous estils*. Revista Animació/20. Valencia: l'Institut Valencià de la Joventut, 2006. [linean]. http://www.ivaj.es/ivaj/export/sites/default/IVAJ/es/ivaj/Publicaciones/Animacio_20.pdf [kontsulta: 2010eko martxoaren 22a]
- *Gaztematika. Sistema de Promoción Infantil y Juvenil de Gipuzkoa*. Gipuzkoa: Dirección General de Infancia y Juventud. Departamento de Política Social. Diputación Foral de Gipuzkoa, 2010. 60 [linean]. <http://www.gizartepolitika.net/cd-memoria/pdf/5/5.8-GAZTEMATIKA%20Cas.pdf> [kontsulta: 2010eko martxoaren 22a]
- Comas Arnau, Domingo. *Ocio y tiempo libre: identidades y alternativas*. Revista de Estudios de Juventud. Nº 50. Madrid: Instituto de la Juventud, 2000. [linean]. <http://www.injuve.migualdad.es/injuve/contenidos.item.action?id=409179047&menuId=1534027782> [kontsulta: 2010eko martxoaren 22a]
- Comas Arnau, Domingo. *La evaluación de programas de ocio alternativo de fin de semana*. Madrid: Instituto de la Juventud, 2001. [linean]. <http://www.injuve.migualdad.es/injuve/contenidos.downloadatt.action?id=1903612698> [kontsulta: 2010eko martxoaren 22a]
- *Guía metodológica para la puesta en marcha de programas de ocio alternativo de fin de semana*. Madrid: Instituto de la Juventud, 2002. [linean]. <http://www.injuve.es/contenidos.item.action?id=1655491341&menuId=1946804632> [kontsulta: 2010eko martxoaren 22a]



- **Abierto Hasta el Amanecer programa.** [linean]. <http://www.abiertohastaelamanecer.com/> [kontsulta: 2010eko martxoaren 22a]
- **Gauekoak programa ocio nocturno.** [linean]. Gazteiz. <http://www.gauekoak.com/> [kontsulta: 2010eko martxoaren 22a]
- **GazteXpresion/Festiart. Gazteiz.** [linean]. <http://xpresarte.net/> [kontsulta: 2010eko martxoaren 22a]
- **El circo social.** Barcelona: Ateneu Popular de Nou Barris. [linean]. <http://www.ateneu9b.net/> (Formaciò i circ social). [kontsulta: 2010eko martxoaren 22a]
- **Miradas extrañas cortometraje. Asociación carmel Amunt y Acteon.** Barcelona, Barrio carmel, 2002. [linean]. <http://www.acteon.es/miradas.htm> [kontsulta: 2010eko martxoaren 22a]
- **Projecte Art-Crea. Batibull Animació sociocultural.** [linean]. <http://inundart.bloc.cat/post/2904/41759> . <http://www.batibull.org/> [kontsulta: 2010eko martxoaren 22a]
- **Moralla espai creatiu de Blanes.** [linean]. <http://www.blanesjove.com/serveis.php?s=Morralla%20Espai%20Creatiu> [kontsulta: 2010eko martxoaren 22a]
- **Espacios para la creacion joven. Extremadura.** [linean]. <http://www.espaciosparalacreacionjoven.net/> [kontsulta: 2010eko martxoaren 22a]



- **Moralla espai creatiu de Blanes.** [linean]. <http://www.myspace.com/morrallablanes> <http://www.facebook.com/morralla.espaicreatiu> [kontsulta: 2010eko martxoaren 22a]
- **Factoría joven. Movimiento Factory.** [linean]. http://blogs.hoy.es/FACTORIA_JOVEN/posts [kontsulta: 2010eko martxoaren 22a]
- **Factoría Joven Plasencia – Facebook .** [linean]. <http://www.facebook.com/people/Factoria-Joven-Plasencia/100000019243334> [kontsulta: 2010eko martxoaren 22a]

mesanotxean bilduma

- 01.** Gazteak eta arriskuaren kudeaketa.
- 02.** Emantzipazioa eta norberaren autonomia.
- 03.** Gazte lokalak.
- 04.** Sare birtualak.
- 05.** Gazteentzako balio anitzeko zerbitzuak.



Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social
Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Infancia y Juventud



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa